

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko baliabideetan adierazi dugun bezela, gure proiektuan parte hartzen duen taldekide bakoitzak abilezia desberdinak ditugu. Beraz bakoitzak ekintza espezifiko batzuk izango ditu, ezinbesteko jarduerak egiteko hain zuzen ere.

Lau taldekide gara eta normala denez, bakoitzak bere abilezia eta trebetasunak ditu (funtsezko baliabideetan aipatuta daude). Horiek aprobetxatuko ditugu gure kabuz ahalik eta zeregin gehien egiteko, baina taldekideren batek larritasunak izanez gero, elkarlanean arituko gara eta denon artean laguntzen saiatuko gara. Hala ere, beste elkarte batzuegandik laguntza jasotzea derrigorrezkoa izango dugu.

Aipatzekoa da hondartzak garbitzen konpromezua hartzen dugun lehen taldea garela, eta egitasmo hau berritzailea eta aldi berean inguruneari laguntzeko sortua dagoela. Gure proiektua aurrera atera ahal izango da jendea kontzientziatuz gure hondartzak garbitzen badira, eta hau oso garrantzitsua iruditzen zaigu, ezinbestekoa. Donostian lehen aldiz sortutako proiektuak arrakasta izango duela argi dugu, garbiketa eta hondakinen kanporaketa hau lehenbailehen egin beharrekoa baita.



Horretarako, taldekide bakoitzak eginbehar jakin batzuk edukiko ditu bere egunerokotasunean, eta hauetaz buru-belarri arduratuko dira.

Esanda dagoen bezala, **Norak** dituen gaitasunen arabera, sare sozialak eramango ditu. Izan ere, erreztasuna du gaur egungo plataforma hauetan ibiltzeko eta honen bidez, sare sozialetan, instagramen, twitterren eta facebooken, argazkiak eta bideoak igoko ditugu eta bertan gure egitarasmoari buruzko informazioa jarriko du, noiz gauzatuko den, non, nola izango den... Horrez gain, txioak ere idatziko ditu. Igotzen duen guztiak eguneratua izatea berebiziko garrantzia du, sare sozialetan etengabe jendea adi dagoelako eta egitasmoko partaideak informazioaren gain egon behar dira.

Miren egitasmoko partaideekin komunikatuko da. Lanak egiten goazen bitartean berak haiei dena azalduko die. Zer eremu tokatzen zaien, hondakinak nora eramanez, nola egin... erraztasunak dituelako jende berriarekin harremanetan jartzeko. Gainera, webgunean zein sare sozialetan ikusgai egongo den zenbakian jasotako deiei eta aldi berean telefonoz iristen diren kezkei erantzuniko die.

Eder, taldeak sortzeaz arduratuko da. Aldez aurretik, horrek oso lan erraza ematen du baino denbora asko darama atzetik; izan ere, talde guztiei ahalik eta

etekin handiena ateratzeko taldeak egin beharko ditu, hau da, parte-hartzaileak antolatzeaz arduratuko da, denak gustora egon daitezen, baina, aldi berean hauek etekin handiena atera dezaten.

Iñaki udalarekin kontaktua mantentzeaz arduratuko da. Hasiera batean, gure proiektua azaldu eta aurrera eramateko baimena jasotakoan, bertan parte hartzen dutenei sari bezela hondakinen tasak kentzeko adostasunera iritsiko da. Hori azaldu ostean, hilabetero udalarekin harremanetan jarri beharko gara gure proiektuan parte hartu dutenak zeintzuk diren esateko, eta horrela tasak kendu ahal izateko.

Azkenik, **Adam** hondakinen kudeaketaren atalaz arduratuko da. Hau da, San Marco zabor mankomunitatearekin kontaktuan jarriko da, astero, hondartzak jasotzean bildutako zabor guztia kamioien bidez zein egunetan eta orduetan etorriko diren birziklatzera eramateko. Gainera, Adamek berak, behar dugun webgunea sortuko du, txikitatik udara guztietan teknologiak maneiatzeko udalekuetara joaten zelako, eta webgunea sortzeko gai delako.

Azken finean, denok bat eginez eta norberak bere lanaren zatia egoki burutzen badu, proiektuak aurrera ateratzeko erraztasuna izango du une oro, beraz funtsezko jarduerak egoki betez gero, aurrerapauso handiak egingo dira orokorrean gure hondartzen garbiketen antolaketan.